

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

EKONOMIA GARAPENAREN ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

Jendaurrean jartzea Garaioko parkean baserria modu jasangarrian birgaitzeko eta Zadorrako urtegiak interpretazio zentro gisa egokitzeko exekuzio proiektua

“Garaioko parkean baserria modu jasangarrian birgaitzeko eta Zadorrako urtegiak interpretazio zentro gisa egokitzeko exekuzio proiektua” Arabako Foru Aldundiko Natura Ingurunearen Zuzendaritzako Ingurumen Jasangarritasuneko Zerbitzuak sustatzen du.

Proiektu hau “Uribarri Ganboako urtegiko hondartzak eta natura ingurunea” izeneko 2023ko deialdiko Helmugetako Jasangarritasun Turistikoko Planaren (HJTP) barruan dago, Europar Batasunaren Next Generation EU funtsek finantzatutako Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan.

Beraz, honako hau

EBAZTEN DUT

Jendaurrean jartzea “Garaioko parkean baserria modu jasangarrian birgaitzeko eta Zadorrako urtegiak interpretazio zentro gisa egokitzeko exekuzio proiektua”

Proiektua osatzen duten agiriak eskuragarri egongo dira kontsultatzeko, Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuaren bulegoetan (Probintzia plaza, 4, 2. eskuina), Vitoria-Gasteizen.

Pertsona juridikoek, nortasun juridikorik gabeko entitateek eta urriaren 1eko 39/2015 Legeko 14. artikuluan adierazitako beste subjektu batzuek bitarteko elektronikoen bidez jarri behar dute harremanetan administrazio publikoekin, prozedura administratibo bateko edozein izapide gauzatzeko. Horregatik, jendaurrean jartzeko izapide honetan subjektu horietako edozeinek egin-dako alegazioak nahitaez bide elektronikoz aurkeztu behar dira. Gainerakoek euskarri fisikoan ere egin dezakete, Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean (Probintzia plaza 5, 01001 Vitoria-Gasteiz), hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera, eta Natura Ingurunearen Zuzendaritzari zuzendu behar zaizkio.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko ekainaren 19a

Natura Ingurunearen zuzendaria
MARÍA JOSÉ MADEIRA GARCÍA